

Seinale eta Komunikazioen Teoriaren Ierroko MUko ikertzaileak ICASSP nazioarteko biltzarrean

2011/06/10

Maiatzaren 23tik 28ra, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Mikel Mendikute, Iker Sobron, Maitane Barrenetxea eta Egoitz Arruti ikertzaileek bi *paper* aurkeztu zituzten.

Horietako batean gaur egungo eta hurrengo belaunaldiko irratidifusioko haririk gabeko estandarrak landu zituzten, horien artean DVB-T2 edo DVB-NGH. Bertan, multi-antena bidezko transmisioaren aukera kontuan hartzen da, banda zabaleraren eraginkortasuna eta seinalearen kalitatea handitzeko helburuarekin.

Bigarren gaia seinale prozesamendurako txipetako sistemen arkitekturak izan zen. Ekarpen honek, erabiltzaile anitzeko eta errendimendu handiko sektore prekodifikatzaileen arkitektura eta FPGAren duen ezarpena analizatzen du.



ICASSP Konferentzian parte hartu zuten